

D SOGUNEKO ERAKASKERA

1999.2000. IKHAS UATHEA.

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Zer erran nahi du Jaundua?
2. Erakuskitzue Artzain Jaunduaran itzalak.
3. Artzain horri zer iduri zaizkio bere herriarenak?

(II) ARTZAINA YAUNDUA

Denek dakigu eskualduna ez dela bere yitez urguntzia, ez eta batere haundi naia. (nahia) <sup>yitez</sup>

Halere, noizian behin —gutitan zorionez— agertzen zaku sos parrasta bat eginikako Amerikano bat, bere sortherrirat yuana herritarren harritzeko, ustez eta bere diruketak denak azpiratuko dituela, schien herrunkakoak iduri zaizkolakotz sosdun ez diren guziak. ¡Gaizo pulloa!

Anitz urtez artzain egona hango mendietan, eta ge-roago artalde baten yabea bilakatua emeki, emeki, horra nun, beste anitzek bezala, 1914-eko gerla haundian sal-tzen dituen bere ardiak, amets ez zitzaken salneurri -ltxatuenetan, Amerikanoek arrapaka erosirik eta zer-...ni pagatuz.

Horra ba, gure gizona bat batian, arratsetik goizera aberastia, eta futxo! sobcraxko laster yaundua, nola itzultzen den bere herrirat soineko ederretan yauntzia, eta karrikari goiti eta behiti badoa harro harroa, bere eriak eraztunez betiak, harri bizi distirantekin. Eta nor-bait urbiltzen balinbazaio, eskiak altxatzen ditu koko-tzaren perekatzeko, untsa ikus dituen heien edergailu yoriak. (yoriak)

Noiztenka bere gazte demborako lagun batek besar-katzen du eta erraiten dako: —>(erraitzen dio)

—¿Oroitzen hiza, Pello, ze marrakutiak yaten gini-tien hain goxoki Adartza-ko kaskoan artzain ginelarik? ¡Debrien arima! Ez ginitikan ez, ordian ibiltzen, hik orai ditukan zapata eder horiek. Altáa, segur nuk ba orai ere ibil itekela goxoago eskalapoin eta galtza mo-txekin. ¿Ez dea ala, Pello?

Eta bizkarrian emaiten dako zartako amultsu bat. Amerikanoa gaitzitzen da gauza horien orotarazteaz eta iardesten dako beltzuri bortitz batekin:

—Utzkik, utzkik alde bat oroitzapen itsus horiek. Ez nuk gauza horiek entzutera yina. —>(yina)

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Agertzen zaku - 32. Iduri zaizkolakotz  
 33. Ez zitzaken - 34. Ez ginitikan  
 35. Orai ditukan - 36. ibil itekela (hintekela)
31. IZAN. Régime Indirect - Indicatif Présent - 32

Hura da = Il est	Hek dira = ils sont
Hura (hui) zait (à moi) = il m'est	Hek (eur) zaizkit (à moi) = ils me sont
" — zaizu (à vous) = il v'est	" — zaizkizu (à vous) = ils vous sont
" — zait (à lui) = il lui est	" — zaizkio (à lui) = ils lui sont
" (à nous) zaigu, zaku = il ns est	" — zaizkigu (à ns) = ils ns sont
" — zaie (à eux) = il leur est	" — zaizkie (à eux) = ils leur sont

33. UKAN. Potential Imparfait.

Upl direct Singulier	Upl direct pluriel
Nik Ukan nezaken = je pouvais l'avoir	N. Ukan mitzaken = je pouvais les avoir
Hik Ukan hezaken = tu pouvais l'avoir	H. " hitzaken =
Zuk " zinezaken = vs pouviez l'avoir	Z. " zinitzaken =
Harek " zezaken = il pouvait l'avoir	H. " zitzaken =
Guk " ginezaken = ns pouvions l'avoir	G. " ginitzaken =
Zuek " zinezaketen = is pouviez l'avoir	Z. " zinitzaketen =
Heiek " zezaketen = ils pouvaient l'avoir	H. " zitzaketen = etc.

BERDIN. IDEM.

à homme C.D.S

- Nik nikan = je l'avais
- Harek zikan = il l'avait
- Guk ginikan = ns l'avions
- Heiek zitikan = ils l'avaient

à femme C.D.S

- N. ninan = je l'avais
- Ha. zinan = il l'avait
- G. gininan = ns l'avions
- H. zitenan = l'avaient

34. UKAN. Indicatif Imparfait. Conjugaison familière

à homme (C.D.P)

- Nik mitikan = je les avais
- Harek zitikan = il les avait
- Guk ginitikan = ns les avions
- Heiek zitiztekan = ils les avaient

à femme C.D.P.

- N. mitinan = je les avais
- Ha. zitinan = il les avait
- G. ginitinan = ns les avions
- H. zitiztenan = ils les avaient